

Herri honetako instituzio nagusiak, Udalak alegia, dituen zerbitzuen arteko bat udal euskaltegia da. Azken urteotan helduen euskalduntze eta alfabetatze prozesuan nagusia izan den eta den ikastegia. Honek adierazi nahi du Udalak, neurri apal batean behintzat, berreuskalduntzeari dagokionez, daukan erantzukizuna onartu eta, garrantzitsuena, gauzatu egiten duela.

1995. urtea arte udal euskaltegiak instalazioak Olibeten zituen. Urte hartatik udal euskaltegiak kokapen berria du, Miguel Irastorza zeritzan eskolan hain zuzen, Miguel Zabaleta kalean. Udal euskaltegiak orain dela hamabost urte zabaldu zituen bere ateak lehen aldiz. Harez geroztik ehundaka dira euskaraz ikasi duten eta alfabetatu diren ikasleak. Ehundaka dira ere, udal euskaltegiak kanpoan nahiz barruan antolatu, egin eta egiten dituen ekintza osagarriak, direla kan-

taldiak (Gari, Txomin Artola,...), direla bertsolariak (Mikel Mendizabal, Andoni Egaña, Sebastián Lizaso,...), direla Santa Ageda koplak kantatzeak, direla ipuin kontalariak (Joxemari Karrera,...), eta abar luze bat.

Euskaltegi honetan erritmo ezberdinak erabiltzen dira ikasleen beharrak kontuan izanik. Bi, hiru edo bost orduko erritmoak dira erabiltzen direnak. 1996/97 ikasturtean eskolez gain tailerrak ere izan dira programazioaren barruan. Argazkilaritza, sukaldaritza, eskulangintza, txalaparta, euskal dantzak eta abar landu ahal izan dituzte ikasleek. Erabilera helburutzat hartuta ederki gauzatu da lortu nahi zena. Bestalde, bukatu berri den ikasturte honetan metodologi berri bat erabiltzen hasi da Udal Euskaltegia, kurrikulum deritzana. Trebetasunen bitartez (mintzamina, idazmina, irakurmena eta entzumena) euskararen erabilera du helburu.



Administrazioaren alorrari dagokionez esan behar da Udal Euskaltegiak udal administrazioaren euskalduntzea bere gain hartu duela, neurri batean behintzat. Irakasle batzuk udal langile batzuekin lanean hasi dira euskaraz funtzionatuko duten zirkuitoak sortzeko. Beste alor batzuetara ere zabaltzea da Udal Euskaltegiaren asmoa. Lan mundua, gurasoak, ikastola, ikastetxe eta institutuetakoko ikasleak, dendariak,... dira helburu. Euskaltegia euskararen mesedetan edonorekin lanean hasteko prest dago. Aurten, esate baterako, Elkarriren deialdiari jaramon eginez, euskararen problematikaren inguruko tailer batean aritu da, beste zenbait talde, teknikari, eta abarrekin.

Udal Euskaltegiak ikasturtean zehar euskalduntzearen prozesuko urrats guztiak emateaz gain, 100 orduko uda ikastaro trinkoa antolatzen du urtero. Era berean esan behar da Uztailero barnetegia ere antolatzen duela. Beizama, Lizartza, Artikutza eta abarretan izan ohi dira, eta aurten Larraulen egin da.

Artikuluaren hasieran berreuskalduntzea aipatu dugu. Erreterriak euskalduna izateari inoiz ere ez diola utzi esan behar da. Erreterriako kaleetan euskaraz entzutea ez da harri-garria. Egia da ez dugula nahi genukeen adina entzuten, azken urteotan gorakada nabaritu den arren. Euskararen presentzia handiago eta nabarmenagoa izan dadin Udal Euskaltegiak gogor dihardu. ✎

